

a l

2017ko ABUZTURA ARTE EGINDAKO ANALISI KuantitatiboEN EMAITZAK


La ket!!

Ai Laket!! elkarteak 2017ko urtarrila eta uztailaren bitartean 79 lagin jaso ditu analisi kuantitatiboa egin ahal izateko. Laginak Testing proiektuan eta Ai Test Gune proiektuan jaso egin dira. Analisi kuantitatibo hauek **Eusko Jaurlaritzaren Osasun Publiko eta Adikzioen Zuzendaritzarekin** eta **EHUko Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrekin** (SGIkerrekin) batera indarrean dugun hitzarmenari esker egin dira. Gogoratu nahi dugu analisiak Erresonantzia Magnetiko Nuklearra (RMN) teknikaren bidez egiten direla, eta beraz laginen konposizioa zehatz-mehatza jakin dezakegula.

Txosten hau egiteko jasotako laginak borondatez utzi egin dituzte **erabiltzaile guztiei eskertu** nahi diegu beraien kolaborazioa.

Kuantitatiboki analizatutako laginak hondoko hauek izan dira: 23 anfetamina, 19 kokaina, 14 MDMA, 9 ketamina; eta heroína, opio eta onddo "mexikar" bana. Bestelako 7 lagin jaso dira ere susmagarri bezala.

ANFETAMINA:




Anfetaminaren **27 lagin** analizatu dira kuantitatiboki. Bataz besteko portzentajeak honako hauek izan direlarik: **%52,6a anfetamina eta %39,6a kafeina**.

Aipatzekoa da **kafeinarik gabeko laginen artean**, 9 laginen artean hain zuzen ere, anfetaminaren bataz besteko purutasuna **%95,6a** izan dela, eta aldiz kafeina zeukaten laginen artea, guztira 18 laginen artean, anfetaminaren bataz besteko purutasuna **%29,6a** dela eta kafeinarena **%60,7a**.


Kontutan izan behar da beraz anfetamina laginek **kafeina daukaten edo ez jakitea oso garrantzitsua** bilakatzen dela, zeren, ikusi dugun bezala, kafeinarik ez izateak purutasun altuko lagina izango delakoaren seinale da ((ziurtasuna ez bada ere). Gogoratu nahi dugu gure analisi kuantitatiboaren bitartez momentuan bertan jaso dezakegula informazio hori.

Kafeinarik ez daukaten laginetan **sintesiaren hondarrak** bakarrik antzeman dira, hau da, produktu organikoak hala nola: Metanola, etanola, isopropanola eta etilenglikola. Azpimarratzekoa da bi laginetan metanolaren **%18,7a eta %39,8a**, hurrenez hurren, topatu direla. Metanolak kalte desberdinak eragin ditzake gure gorputzean bai kantitate altuak hartzerakoan bai jarraian kantitate txiki asko hartzen badira. Gogoratu nahi dugu disolbatzaile organikoa hauek giro-tenperaturan lurruntzen direla eta beraz arriskuak murrizteko, laginak lehortzearekin nahiko izango litzatekeela.


a



2017ko ABUZTURA ARTE EGINDAKO ANALISI Kuantitatiboen EMAITZAK



La ket!!


KOKAINA:

18 kokaina lagin analizatu dira kuantitatiboki. Lagin guztiek bat izan ezik positibo eman dute kokainan, hau da, iruzur bat antzeman egin da. **Iruzurra** lidokainaren eta manitolaren arteko nahasketa bat da.

Lagin guztien kokainaren batz besteko **purutasuna %80.1**ekoa da., eta iruzurra kontutan hartzen ez bada %84.6koa da. Hala ere aipatzekoa da purutasunen tartea oso zabala dela, purutasun minimoa (iruzurra kontuan hartzen ez bada) %37,7koa baita eta maximoa %100koa.

Aizuntzaileen artean nabarmendu nahi dugu **lebamisola** bai gehien agertzen den aizuntzailea delako bai bere toxikotasuna dela eta. Analizatutako laginen erdian lebamisola antzeman da (iruzurra kontuan hartzen ez badugu), batz beste lagin guztietan %9,2a da lebamisol, eta bakarrik kontuan hartzen baditugu lebamisola topatu denean %20,4a. Azpimarratzekoa da **bi laginetan oso kantitate handietan antzeman dela**, %45.8a eta %65.7a hain zuzen ere. Lebamisola albaitaritzan erabiltzen den antihelmintikoa bat da. Denbora luzaroan kontsumituz gero edota denbora tarte txikitan asko kontsumitzen bada honako efektu kaltegarri hauek eragin ditzake: hipersentiberatasun erreakzioak hala nola, sukarra, gripe-sindromea, gihar-minak, eta larruazal negala; efektuak nerbio-sistema zentrolean hala nola, zefalea, loezina, bertigoa; arazo gastrikoak (adibidez aho zapora txarra) eta agrunolozitosis (odolean globulu zurien gutxipena)

Ez-ohikoa izateagatik **etiracetam**ekin aizundutako lagin bat nabarmentzen da, %19.5 etiracetam du lagin honek. Sustantzia hau nootropikoetan sailkatu daiteke, hau da, memoriaren bizigarria eta indartzaile kognitiboa. **Lehenago aldia da sustantzia hau antzeman dugula** gure analisisetan.


MDMA

Kuantitatiboki 14 lagin analizatu dira, 5 kristal itxura zeukaten eta beste 9ak pilulak ziren. **Kristal itxurako lagin guztiak puruak dira.**

Pilulen batez besteko **purutasuna %53,1**koa da, eta purutasun tartea %36,4 eta %66.5 artekoa da.

Kaltzio sulfato da antzemandako beste sustantzia bakarra, batz beste %45.4 izan delarik

a




2017ko ABUZZURA ARTE EGINDAKO ANALISI KUANTITATIBOEN EMAITZAK



La ket!!

KETAMINA:



7 lagin analizatu dira kuantitatiboki. **Lagin guztiek ketaminan positibo** eman dute. Gogoratu behar da azkeneko garaian oso ohikoa izan dela antzematea ketamina bezala saldutako beste sustantziak, hala nola, metoxetamina edota tiletamina. 2017an horrelakorik ez da eman.

Bataz beste ketaminaren **purutasuna %67.8a** da. Bi lagin puruak daude, eta besteak kreatinarekin aizundutak daude. Kreatina bataz beste %27.8a da, eta bakarrik kontuan hartzen baditugu kreatina antzeman diren laginak bataz beste %39.0a da.

BESTELAKO SUSTANTZIAK:

Analizatutako **heroinazko** lagin bakarrak hondoko konposizio hau du: %9,6a heroina, %51,3a parasetamola; %32,8a kafeina; %4,1a noscapina; %1,9a 6-azetilmorfina eta %0,3a papaberina.

Opiozko laginak %13a morfina eta %7,8a noscapina du, beste guztia landare-zuntzak direlarik.

Onddo mexikarrak %0,2a psilozibina du, beste guztia zelulosa zuntzak direlarik.

Bi poppers lagin analizatu dira eta konposizio desberdin izan dituzte. Batean isopropil nitrito antzeman da isopropanola eta azetona dituelarik, eta bestean n-petil nitrito (%54a) eta 2-metilbutil nitrito (27%) antzeman dira n-pentanol eta 2-metilbutanol dituelarik.


2CB giza saldutako lagina benetan DOC lagin bat da.

2-AI bezala saldutako lagin bat, bizigarri bat da, azkenean 3F-fenmetracina dela jakin izan da. Fenmetrazina beste bizigarri bat da eta aipatzekoa da lehengo aldiz antzeman egin dugula.

Mefedrona bezala saldutako lagin bat anfetamina, kafeina eta kaltzio sulfatoaren nahasketa bat da.

Erabiltzaile batek hitzez hitz MDMA baino indartsuagoa bezala saldutako lagin bat venlafaxina izan da. Venlafaxina depresio-contrako botika bat da.

Lurrean topatutako eta analizatzera ekarritako ahutz itxurako lagin bat azkenean ibuprofenoa zela jakin da.



Kanabisa erretxina gisa saldutako lagin bat olio ezberdinen nahasketa dela jakin da, errezino-olio antzerako olioak hain zuzen ere.

INFORMAZIO GEHIAGORAKO gure web gunean edo sakelentzeko doako aplikazioan begiratu dezakezu

Ai Laket!! Elkartea Jesusen Zerbitzarien kalea 40, etxabe. 01001, Vitoria-Gasteiz (Araba).

www.aialaket.com

[APP AI LAKET](#)

SERVICIO DE INFORMACIÓN Y TESTADO DE DROGAS DROGEI BURUZKO INFORMAZIO ETA TESTING ZERBITZUA

PUNTO FIJO DROGEI BURUZKO INFORMAZIOA ETA ANALISIAK OSTIALERO- VIERNES 19:00-22:00
HERRERIA 43 BAJO. VITORIA-GASTEIZ. 945 23 15 60

LONJALAKET!!
Eguna eta ordua zuk erabaki
Tú decides el día y el horario
Anonimoa, konfidentziala eta debalde
Anónimo, confidencial y gratuito
aialaket!!
www.aialaket.com